

HIRIKO JABARI PUBLIKOKO LURZORU, LURGAIN ETA ZORUPEAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZITAKO TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

20. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea hiriko jabari publikoko lurzoru, lurgain eta zorupearen edozein erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi da, betiere tarifa-eranskinean zedarrizten bada, eta honako adibide hauen zerrendan sartzeko modukoa bada, barne hartuta instalatutako elementuek eta kotatutako, mugatutako edo erreserbatutako eremuek ukitutako azalera:

- a) Erabilera publikoko zorupea okupatzea.
- b) Erabilera publikoko lurrak okupatzea salgai, eraikuntzako material, hondakin, hesi, eskora, asto, aldamiu edo gisako instalazioekin.
- c) Pisuetako burdinsare, lukana, arnasbide, sarrera-ate, karga-aho eta horien gisako elementuak instalatzea, hiriko edozein bide publikotako zorua edo zorupea okupatuz, soto edo erdi-sotoei argia eta aireztapena emateko edota haietara pertsonak eta ibilgailuak sartzeko, bai eta argiteriako sare publikotik argia hartzeko ere.
- d) Hiriko edozein bide publikotako lurgaina okupatzea, eraikinak ixteko elementu, terraza, behatoki, balkoi, markesina, olana edo gisako instalazioekin, bai eta bide publikoaren gainean dauden edo fatxadaren lerrotik ateratzen diren hegalkinekin eta kristalez itxitako balkoi eta terrazekin ere.
- e) Hariak, hodiak eta galeriak –argindarra, ura, gasa edo beste edozein fluido eramatekoak–, lineetarako paldoak, kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrarako kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, aldamiuak eta gisakoak barne, bai eta salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak ere, baldin eta hiriko bide publiko edo jabari publikoko bestelako eremuetan edo horien hegalkinetan kokatuta badaude.
- f) Erabilera publikoko lurrak okupatzea mahaiak, kadirak, tribunak, oholtzak edo haien gisako bestelako elementuak paratuta irabazteko xedez, eta, bereziki, ostalaritzako jardueri begira egindako okupazioa, barne hartzen baditu itzalkinak, itxiturak edo egitura autosostengatzaileez egindako beste edozein instalazio.
- g) Kioskoak paratzea bide publikoan.
- h) Erabilera publikoko lursailetan hala postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta olgetako instalazioak kokatzea nola kalez kaleko industriari baliatzea, zinema-filmaketak egitea eta ganadu-ferietako eskortak instalatzea.
- i) Portaleak, erakusleihoak eta beira-arasak.
- j) Erregai-andelak eta -hornigailuak eta, oro har, artikulua edo salgaiak instalatzea, bide publikoko lursailetan kokaturik badaude.
- k) Iragarkiak hiriko jabari publikoko lursailak hartuz jartzea, bertan horma-irudiak, errotuluak, olanak, trompe- l'oeil efektuko margolanak eta publizitateko zein informazioko beste edozein elementu paratuta, faroletan, aldamiuetan, fatxadetan edo euskarri bertikaletan, baldin eta, azken kasu horretan, publizitatea ez bada emakida baten xede. Ez dira joko tasapeko elementutzat Zirkulazio Araudi Orokorrean aurreikusitako seinaleak, ezta argibide-seinaleak ere, aurrekoen antzekoak badira diseinuan eta ezaugarrietan eta Udalak baimenduta instalatzen badira.
- l) Lur, eraikin edo hesiei eusteko hormak, behin betikoak zein behin-behinekoak, hiriko bide publikoetan paraturik.
- m) Azienda hiriko bide publiko edo jabari publikoko lur eta bideetan barna igarotzea.
- n) Beste hainbat aprobetxamendu, baldin eta horietan inguruabar berezi batzuk badira, hala nola arriskugarritasuna, erabilera-maiztasuna, errentagarritasun berezia edo horien antzeko beste zenbait, eta, bereziki, bide publikora ematen duten fatxadetan kutxazain automatikoak eta produktu ezberdinak saltzeko makinak paratzeak dakarren aprobetxamendua.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Zerga hauek ordaintzeko betebeharra erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastean sortzen da, aurretik behar den baimena eskatu behar delarik.

Erabilera edo aprobetxamendua alde aurretik nahitaezko udal-lizentzia lortu gabe egiten bada, Ordenantza Fiskal honetan ezarritako tasaren ordainketak ez du egindako erabilera edo aprobetxamendua legeztatuko, eta instalazioak inolako kalte-ordainik gabe kentzeko agintzen ahalko da.

Ordenantza honen xede diren erabilera pribatiboek edo aprobetxamendu bereziek tasa aldizka sortzea eskatzen badute, tasa urtero urtarrilaren 1ean sortuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilerak edo aprobetxamenduak urte barnean hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhileko naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierakoa edo bukaerakoa ere barne harturik.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak daude, zergadun gisara, tasa ordaintzera beharturik, baldin eta hiriko jabari publikoko lurzoru, lurgain eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiten badute, edo haiei onura ateratzen badiete.

Bide publikoan paratzen diren edukiontzien kasuan, halakotzat joko dira edukiontziak paratzeko baimena, Udalak emanda, jaso duten enpresak.

5. artikulua.- Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek lurzorua, lurgaina eta zorupea erabili edo horien aprobetxamendua egiteagatik ordaindu beharreko tasek kasuan kasuko ordenantza fiskalari edo aplikagarri zaizkien udal-erabakiei eginen diete men.

Oinarria, tasak eta tarifak

6. artikulua.- Tarifak aplikatzeko oinarria erabileraren edo aprobetxamenduaren iraupenak eta okupatutako bide publikoaren neurriek xedatuko dute. Lurgaina kableen bidez okupatzerakoan, 0,50 metroko zabalera ezartzen da gutxieneko neurri gisa.

7. artikulua.- Tarifak honako Ordenantza honen Eranskinean jaso dira.

Enkante publikoaren prozedura erabiliz gero, tasaren zenbatekoa emakida, baimena edo esleipena zein proposamenari eman eta horren balio ekonomikoaren arabera xedatuko da.

Kudeaketa-arauak

8. artikulua.- Erabilera pribatiboek edo aprobetxamendu bereziek udal-ondasun edo udal-instalazioen suntsiketa edo narriadura ekartzen badute berekin, onuradunek –egokitzen ahal zaien tasa ezertan galarazi gabe– aipatu horiek guztiak berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaindu beharko dute, bai eta zenbateko hori aurretik gordailu gisa utzi ere.

Gordailu hori ukituta gerta daitezkeen ondasun eta instalazio guztien balioaren arabera finkatuko da, eta haiek zenbakietara ekartzeko udal-teknikari batek txostena emanen du, aurretik.

Gordailua indarra duten arauak edo lizentziaren baldintzak hausteagatik izan daitezkeen zehapenei lotzen ahal zaie. Fidantza berreskuratu ahal izateko, horren aldeko txostena eman beharko da, non egiaztatuko baita indarra duten arauak eta lizentzia hartzeko baldintzak hertsiki bete eta lurzorua behar bezala konpondu dela.

Bide publikoa edukiontziekin okupatzen bada, gordailu orokor bat eratuko da, baimendutako enpresa bakoitzak egin behar dituen instalazio guztietarako, Bide publikoan zaborrontziak paratzeari buruzko Ordenantzaren xedatutakoarekin bat.

9. artikulua.- Erabilera dela-eta sortutako kalteak konponezinak badira, onuradunak suntsitutako gauzek zenbat balio duten edo kaltetutakoen balio-galera norainokoa den eta horrenbeste emanen dio ordaintan Udalarari. Bereziki konponezintzat hartuko dira interes artistikoa edo historikoa duten monumentuetan eta 20 urte baino gehiagoko zuhaitzetan egindako kalteak.

Fidantzek, lehenik eta behin, kalte-ordain horiek estaliko dituzte.

10. artikulua.- 1) Ordenantza honetan araututako tasei lotutako erabilerak edo aprobetxamenduak dagokion erroldan jasoko dira, betiere ohikoak eta etengabeak badira. Tasa sei hilabetez behin ordaindu beharko da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritako epe eta baldintzetan.

2) Erabilerak edo aprobetxamenduen lizentziarik behar ez badute, aurretik dagokien kuota ordaindu beharko da, eta kasu horretan, agiria eskuratu beharko da, zeina, behar bezala datatuta, horretarako izendatutako langileek emanen baitute.

3) Bide publikoa edukiontziekin okupatuz gero, enpresa baimenduen okupazioei dagozkien tasen autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte hilabete oro, autolikidazioa zer hilabeteetako izan eta okupazioa hilabete horretan amaitu bada. Horretarako, Udal Administrazioak eskura jarriko duen prozeduraz baliatu beharko da. Autolikidazioa eta horren ordainketa zer hilabeteri egokitu eta hurrengo hilabetearen lehenbiziko 20 egun naturalen epean egin beharko dira. Autolikidazioa egiteko betebeharrak ez du ezertan galarazten Udal Administrazioari adierazi beharra, gutxienez edukiontziak paratu baino egun bat lehenago, okupazioa gauzatuko dela, eta, baita ere, bide publikoan zenbat edukiontzi paratuko diren eta non, edukiontzien neurriak zein diren eta zerbitzua nori egin behar dioten, instalazio edo kokapen hori ukatu edo aldarazi ahal izatea ezertan galarazi gabe.

4) Epemugarik gabe paratutako publizitate-iragarkiak xede horretarako sortutako tributu-erroldetan jasoko dira. Subjektu pasiboek deklaratu beharra dute, arau honek indarra noiz hartu eta hurrengo hiru hilabeteetan, aurretik zenbat publizitate-elementu paratu dituzten eta horien ezaugarriak.

5) Lizentzia edo baimenaren eskatzaileek eskaeran adieraziko dute erabilera edo aprobetxamenduaren iraupena. Ezin badute aldeztu aurretik iraupen hori zehaztu, erabilera edo aprobetxamendua bukatutakoan aurkeztuko dute aitortzea, eta ulertuko da horiek bukatu direla partikularrik Udalarari hori jakinarazten dionean.

Erabilera publikoko lurrak okupatzen badira eraikuntzako material, hondakin, hesi, eskora, asto, aldamiu edo gisako instalazioekin, behin erabilera amaituta aurkeztu beharko dira hala obra-bukaerako ziurtagiria –bertan adierazita okupazio-azalera eta -aldia– nola aldamiuak eta hesiak instalatu dituen enpresaren fakturen kopia.

Tributu-administrazioak aurkeztutako aitopenen arabera eginen du dagokion likidazioa. Partikularrek ez badute betetzen aitortzeko duten betebeharra, ulertuko da erabilerek edo aprobetxamenduek iraun dutela harik eta ikuskapen-zerbitzuek egiaztatu arte baimendutako okupazioa burutua dela, eta tasa likidatuko da kasuan kasuko erabilerak edo aprobetxamenduak zenbat iraun duen eta denbora horren arabera.

Erabilera edo aprobetxamendua denboraldi osorako ematen bada, hiruhileko bakoitza amaitu ondoren ordaintzen ahalko da tasa. Hiruhileko baten likidazioa ez da eginen, erabilerari edo aprobetxamenduari uko egiten bazaio hiruhileko hori hasi baino hilabete lehenago.

6) *Mahai, kadera eta mahaitxoak* izeneko I. epigrafeari dagokionez, Udalak baimena osorik baliogabetu dezake, edo aldi baterako eten, baldin eta bidezko arrazoiak, obrak, konponketa-lanak eta abar badaude, eta kobratutako tasaren zati proportzionala itzultzeaz beste betebeharririk gabe egin dezake.

11. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak eta fidantzak Herritarren Segurtasuneko Alorraren bulegoetan jarritako kutxan ordaintzen ahalko dira, honako kontzeptu hauek direla medio sortuak badira:

- a) Azoka txikiak, salmenta-postu finkoak eta ibiltariak sanferminetan.
- b) Taberna-ibilgailuak.
- c) Salmentetarako erabilerak ganadu-ferietan.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAK ZORUAN:

I.1. Mahaiak, kadirak, mahaitxoak, barrak, itzalkinak, itxiturak eta antzeko elementuak, ostalaritzako jardueretarako baimenduak badira:												
I.1.1. Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, urtean:												
	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
1. aldea	66,71	59,57	47,65	37,17	28,11	20,97	15,25	11,91	9,53	9,06	8,58	8,10
2. aldea	55,59	49,63	39,71	30,98	23,43	17,47	12,71	9,92	7,95	7,55	7,15	6,75
3. aldea	46,33	41,36	33,09	25,81	19,52	14,56	10,59	8,27	6,62	6,28	5,96	5,63
4. aldea	37,06	33,09	26,47	20,64	15,62	11,65	8,48	6,62	5,29	5,03	4,76	4,50
I.1.2. Sanferminetan, urte osorako baimena duten terrazak handitzea baimentzen ahalko da, edo baimenak eman jaietarako bakarrik erabiliko diren terrazetarako. Bi kasuetan, behar den baimena eskatu beharko da, eta horretarako idazkia aurkeztu, Udal Erregistroan. Baimena uztailaren 6tik 14ra bitarteko eperako emanen da, bi egun horiek barne. Tarifa hau aplikatuko da:												
- 0. eta 1. poligonoetako 1. aldean, baimenduriko m ² bakoitzeko											64,23 euro	
- Gainerakoan, baimenduriko m ² bakoitzeko											40,87 euro	
I.1.3. Eguneko tarifa urtebete baino gutxiagoko beste zenbait erabileretarako:												
- Metro karratuko eta eguneko											5,72 euro	
I.1.4. Itzalkinak, itxiturak, eguzki-oihalak, babes-elementuak, haize-babesak eta antzekoak:												
- Kasu horietan, % 50 gehituko zaio I.1.1. azpiepigrafearen arabera ordaindu beharreko tarifari.												
I.1.5. Galtzadako gehigarriak:												
- Kasu horietan, % 100 gehituko zaio I.1.1. azpiepigrafearen arabera ordaindu beharreko tarifari.												
I.1.4 eta I.1.5 azpiepigrafeetan jasotako igoerak bateragarriak dira, eta, beraz, hala badagokio, bi igoeren batura aplikatuko da.												

I.2. Azoka txikiak, metro linealeko edo horren zatiki bakoitzeko:	Eguneko	Denboraldiko
- Elikagai, arropa eta oinetakoen salmenta	4,32 euro	174,59 euro
- Eskulenen, liburuen, numismatikaren eta bestelakoen salmenta	1,64 euro	64,70 euro

I.3. Merkatu txikiak:	Eguneko	Denboraldiko	Sanferminak
- Eskulan txikien, bisuteriaren eta bestelako produktu baimenduen salmenta, postu bakoitzeko.	4,56 euro	67,73 euro	29,54 euro
Denboraldiko tarifak ez du sanferminetako okupazioa barne hartzen.			
Tarifa horiek hasierako prezioztat joko dira, adjudikazioa enkante bidez egiten bada.			

I.4. Salmenta ibiltaria eta salmenta-postu finkoak sanferminetan:

Baldin eta Udaleko organo eskudunak sanferminetan salmenta ibiltaria baimentzen bada Iruñean, jarduera horrek sortuko duen tasa 61,78 euro izanen da hartan jarduten duen pertsona bakoitzeko eta uztaillaren 6tik 14ra bitarteko eperako.

Halaber, saltoki finkoen instalazioa enkantez besteko prozeduraz baimentzen bada, horiek sortuko duten tasa 49,69 euro izanen da postu horiek salmentarako betetzen duten metro lineal bakoitzeko. Baldin eta baimentzen dena Udalak instalatzen ahal dituen salmenta-postu finkoen erabilera bada, ordaindu behar duenak tasa honetaz gain instalazioen alokairuari dagokion zenbatekoa ere ordainduko du.

Adjudikazioa enkante bidez egiten bada, zenbateko horiek lizitazio-preziotzat hartuko dira.

I.5. Taberna-ibilgailuak:

Baimendutako ibilgailu bakoitzeko eta erabiltzen den egun bakoitzeko tarifa hau kobratuko da, betiere tokia enkante bidez adjudikatzen ez bada	198,00 euro
--	-------------

I.6. Edukiontzia bide publikoan paratzea:

- Edukiontzi eta egun bakoitzeko	0,41 euro
----------------------------------	-----------

I.7. Banku jardueretarako erabilerak, fatxadan eta bide publikora begira ezarritako kutxazain bakoitzeko, urtean:

	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
1. aldea	133,43	119,13	95,30	74,34	56,22	41,93	30,50	23,83	19,06	18,11	17,16	16,20
2. aldea	111,18	99,28	79,42	61,94	46,86	34,95	25,42	19,86	15,88	15,09	14,30	13,50
3. aldea	92,66	82,73	66,18	51,62	39,05	29,12	21,18	16,54	13,24	12,58	11,91	11,25
4. aldea	74,12	66,18	52,95	41,30	31,23	23,30	16,94	13,24	10,59	10,06	9,53	9,00

I.8. Produktuak saltzeko makinak:

- Fatxadan eta bide publikora begira ezarritako makina bakoitzeko I.7. azpiepigrafean jarritako tarifa berberak aplikatuko dira.

I.9. Kupoiak eta loteria saltzeko kiosko eta kabinak, ezarritako kabina edo kiosko bakoitzeko, urtean:

0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
74,12	66,18	52,95	41,30	31,23	23,30	16,94	13,24	10,59	10,06	9,53	9,00

I.10. Ganadu-feriak. Eskortak instalatzea ganadu-ferietan:

- 9 m ² -ko eskorta	3,19 euro
- 18 m ² -ko eskorta	5,32 euro
- 36 m ² -ko eskorta	8,52 euro
- 54 m ² -ko eskorta	11,71 euro
- Aurreko azalera baino handiagoak, metro koadro bakoitzeko	0,53 euro

I.11. Bestelako erabilerak edo aprobetxamenduak:

Aurreko ataletan jaso ez diren erabilera edo aprobetxamenduen kasuan, tasa honako kontzeptu hauek batzetik sortuko da:

a) Baimendu daitekeen aprobetxamendu edo erabilera bakoitzeko	21,29 euro
b) Tokiko jabari publikoa benetan erabiltzeagatik, I.11.1 edo I.11.2 epigrafeetan adierazitako tarifak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.	

I.11.1. Jarduera ekonomikoetako bestelako erabilera edo aprobetxamenduak, 10 m²-ko, egunean:

	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
1. aldea	1,86	1,65	1,33	1,03	0,79	0,58	0,43	0,33	0,27	0,26	0,23	0,22
2. aldea	1,54	1,38	1,10	0,86	0,65	0,49	0,36	0,28	0,22	0,21	0,19	0,18
3. aldea	1,29	1,15	0,92	0,71	0,54	0,41	0,30	0,23	0,18	0,17	0,16	0,15
4. aldea	1,03	0,92	0,73	0,57	0,44	0,33	0,23	0,18	0,14	0,14	0,13	0,11

I.11.2. Jarduera ekonomikoetarako ez diren bestelako erabilera edo aprobetxamenduak, itxiturak eta jarduera ekonomikoez besteko edozein okupazio, 10 m²-ko, egunean:

0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
1,03	0,92	0,73	0,57	0,44	0,33	0,23	0,18	0,14	0,14	0,13	0,11

II. EPIGRAFEA.- ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAK LURGAINAN:

- Aplikatu beharreko tarifak I.11.2 epigrafean ezarritakoen % 50 izanen dira

III. EPIGRAFEA.- ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAK ZORUPEAN:

III.1. Ezarritako tanga bakoitzeko, urtean:

0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
2.057,13	2.057,13	1.962,00	1.877,98	1.805,11	1.477,99	1.074,90	839,78	671,81	638,20	604,67	571,06

- Erregai-biltegien kasuan, arrazoi teknikoak direla-bide ezin badira erretiratu eta Udalak behartzen badu horiek geldotzera, tasa % 75 murriztuko da.

III.2. Gutxienerako kuota zerbitzuak banatzeko sare orokorrak instalatu eta aprobetxatzeagatik, halakoak beste tasa baten zerga-egitate ez badira:

- Metro lineal bakoitzeko, urtean

7,07 euro

IV. EPIGRAFEA.- ERABILERA PUBLIZITARIOA:

- Edozein euskarritan ezarritako iragarkiak, finakoak zein behin-behinekoak, ezarritako elementu bakoitzaren m² eta egun bakoitzeko

0,58 euro